



Alan Turingen biografiak

GUILLERMO ROA ZUBIA
Elhuyar Zientziaren Komunikazioa



Zientzialari ezagunen artean ez badago ere, Turingen bizitzak eta lanak sorrarazi duten liburu-kopurua izugarria da. Turingi buruz asko idatzi da, eta oso zaila da gomendio moduan liburu bakarra aukeratzea.

Biografiaren artean aipagarrienetako bat Alan Turing: *The Enigma* da. Andrew Hodges britainiarak idatzitako liburu hori erreferentzia da Turingen biografiaren artean. Hodgesek ederki ezagutzen du Turing, eta haren bizitzaren jarraipena egiten du, ikuspuntu guztietatik aztertuta. Gainera, pertsonaia askorekin gertatzen den bezala, Turingen bizitza eta lana ezin dira bereizi. Ezin da bata kontatu besteari begiratu gabe. Alde horretatik, Bigarren Mundu Gerrako eta ondorengo urteetako Ingalaterra aurkezteko ahalegina egiten du Hodgesen liburuak, eta, horrekin batera, baita konputazioaren historiaren testuingurua ere. 1986an, biografia horretan oinarritu zen Hugh Whitemore ingelesa *Breaking The Code* filmaren gidoia idazteko.

Kontuan hartzeko moduko bigarren biografia bat Turingen amak berak, Sara Turingek, idatzitakoa da. Izenburua argia eta zuzena da: *Alan M. Turing*. "Haren bizitza laburrean gauza asko lortu zituen" dio Turingen amak. Biografia txikia da, eta oso pertsonala. Kritikari batzuen esanean, Sara Turingek ez zuen perspektibaz

i

Alan Turing: The Enigma

Andrew Hodges

VINTAGE, 1992

198 x 129 mm

ISBN: 978-00-99116-41-7

Alan M. Turing: Centenary Edition

Sara Turing

Cambridge University Press, 2012

216 x 140 mm

ISBN: 978-11-07020-58-0

The Man Who Knew Too Much

David Leavitt

Phoenix, 2007

198 x 129 mm

ISBN: 978-07-53822-00-5

ikusten semearen bizitza. Adibidez, oro har onartuta dago Alan Turingek Asperger sindromea zuela, baina haren amak ez du halakorik onartzen; harentzat, Alan pertsona berezia zen, besterik gabe. Baina hori ez da ezinbestean kritika txar bat. Izan ere, ama batek nekez ikusten du semea perspektibaz; bere bizipenetan oinarrituta ikusten du, eta horrek balio erantsi bat ematen dio. Turingen Urtea ospatzeko, bi biografiaren edizio bereziak prestatu dituzte; Turingen amak idatzitakoa kalean da, eta Hodgesen liburuarena, aldiz, kaleratzeko dago oraindik.

Gainera, Turingen beste biografia batek ere ospe handia hartu du: *The Man Who Knew Too Much*, David Leavitt estatubatuarak idatzitakoa. Beharbada, biografia horrek ez du aurreko biek duten kalitatea, eta, hala ere, lan gomendagarria da.

Turingi buruzko liburuen zerrenda ez da biografiek bukatzen. Zientziaren hainbat esparrutan—informatikan, batez ere— egindako ekarpeni buruz ere asko idatzi da. George Dyson-en *Turing's Cathedral* adibide ona da. Eta Bigarren Mundu Gerran egindako deskodetzelanari buruzko testu asko dago, esate baterako *The Secret Life of Bletchley Park* liburua, Sinclair Mackay-rena. ●



SAREAN+